

BIDELAGUN

ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN PERTSONENTZAKO ANTZERKI ETA DANTZA TAILERRA

Txobe enpresaren eskutik



Egileak:

Amaia Olariaga
Maider Uzcudun
Eider Manso
Nahuel Valdebenito

Oiangureneko HH2ko ikasleak

SARRERA

Oianguren institutuko HH2-ko Txobe taldeak, Bidelagun izeneko enpresa bat sortu du. Gure enpresak, beste zenbait ekintzekin batera, aniztasun funtzionala duten pertsonentzako antzerki eta dantza tailerra eskainiko du. Nahiz eta antzerkia izango den azken emaitza, eskulan eta dinamika ezberdinei esker, garapen orokorra bermatzea da Bidelagun proiektuaren funtsa.

Aztertu dugun moduan, horrelako pertsoneri honako tailerra eskaintzen dizkieten erakunde asko daude. Egia da, Aniztasun Funtzionala dutenek, herri txikietan eskaintzen duten tailer horietan izena eman dezaketela, baina ikusi da, ez direla beraien beharretara edo garapen pertsonalera egokitzen, hau da, pertsonak egokitzen dituzte jarduerara eta ez jarduera pertsona hauetara. Horregatik, gure enpresa honako egoerei erantzuteko gai izango da; Bidelagun, gizartean nabarmena den hutsune bat betetzeko sortu da.

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gaur egun eskaintzen diren tailerretatik, Bidelagun proiektuak hainbat baliabide ezberdin eskaintzen ditu. Esan dugun moduan, antzeko tailerrak badaude, adibidez Donostiako antzerki taldea, baina Goierri aldean ez dugu horrelakorik. Beraz, gure enpresak Goierriko zonaldean bizi diren pertsoneri parte hartzeko aukera ematen die.

Jarraian, gainontzeko tailerretatik bereizten gaituzten ezaugarriak azalduko ditugu:

- Erabiltzailearen alderdi guztiak ezagutuko ditugu, hau da, bakoitzaren **ahulguneak eta indarguneak** aztertu eta asetuko ditugu. Honakoa ikusi ondoren, dinamikak taldearen arabera eta pertsonaren arabera antolatu eta burutuko ditugu.
- Aurreko puntuan aipatutakoa burutzeko, **erregistro orri** batean erabiltzaile bakoitzaren garapen prozesua erregistratuko dugu hauen araberako irtenbideak bilatzeko edo bakoitzaren garapenean laguntza emateko.

- Eskainiko dugun guztia **personalizatua** izango da, ondoren, talde handian eraginkortasuna izateko.
- **Familiak** ere aukera izango du prozesu honetan parte hartzeko, izan ere, familiek tailerretan parte hartzeko aukera izango dute; familia osoari zuzendutako zerbitzu bat da. Prozesu osoan zehar kontaktua mantenduko dugu, beraien iritziak entzunez, uneoro hobekuntzak egiteko asmoz, guretzako garrantzitsuena erabiltzaileen ongizatea bermatzea baita.
- **Elkarlanean** arituko gara Aspace eta Gureak bezalako enprekin, eta horrez gain, familiekin ere bai.
- **Konfidantza** sustatuko da, bai erabiltzaileekin, familikoekin eta gainontzeko langileekin. Horretarako, bakarkako bilerak aurrera eramango ditugu.
- Helburu orokorra, aniztasun funtzionala duten pertsonari, gainontzeko gizakiok bezala, ekintzak egiteko aukera ematea da, betiere beraien baldintzetara egokituz. Orokorrean, zerbitzu honen funtsa, ekintza horiek eginez ondo pasatzea da; **plazer sentsazioa** izatea.
- **Helburu espezifikoak** ere egongo dira. Esan bezala, talde bakoitza ondo ezagutuko dugu eta horien arabera dinamika bat edo beste proposatuko diegu amaieran egingo den antzezpenean islatu ahal izateko. Adibidez, talde baten helburu espezifikoak honako hauek izan daitezke (gogoratzen dizuegu taldearen arabera antolatuko ditugula klaseak eta dinamikak):
 - Mugikortasuna lantzea, Youtubeko aulkidun ariketak, irteerak... eginez.
 - Beraien artean eta kanpoko agenteekin komunikazioa lantzea
 - Beraien artean laguntzea
 - Ariketa kooperatiboak eginez elkarlana sustatzea (Talde kohesioa)
 - Elikagaien garrantziaz ohartzea, jaten dutena kontrolatzea (kantitatearen murrizketa, osasun ona mantentzeko)
 - Janari ezberdinak eginez sukaldatzen ikastea
 - Egunerokoa idatziz idazketa lantzea
 - Jasotzen duten mezua ondo transmititzen jakitea

- Zerbait ulertzen ez dutenean inolako lotsarik gabe galdetzen ikastea
 - Egoeren arabera, modu batean edo beste batean aurre egiten ikastea, betiere errespetuz. Hitz eginez gatazkak konpontzen ikastea
 - Sormena lantzea
 - Entzute aktiboa eta arreta hobetzea
 - Komunikatzeko, gorputzaren adierazpenak duen garrantziaz ohartzea
 - Norberak dituen sentimenduak eta emozioak adierazten ikastea
 - Abestea
 - Antzezlanak prestatzea: sormenean landuko diren ekintzetatik aterako diren ideiak orri batean idatziko ditugu eta horren arabera antzerkirako pertsonaia osatzen joango gara.
 - Eskulanak
 - Musikoterapia
- Gure bezeroen **irisgarritasuna** ere kontuan hartuko dugu, honetarako, minibus bat izango dugu prest gure bezeroak garraiatzeko, hau ere, beraien behar ezberdinetara egokituta egongo da.

Esan bezala, gure proiektua aurrera eramateko, erabiltzaile bakoitzari egokitutako baliabide eta material ezberdinak eskainiko ditugu. Honekin batera, testuinguru eroso eta segurua eskainiko diegu, bereziki, Lazkaoko Zine Aretoko gela handi batean. Batez ere, Aspace eta Gureak-eko elkarrekin jarriko gara harremanetan. Hala ere, edozein pertsonarentzan eskuragarria izango da. Gutxienez, 20 pertsona osatutako taldea eta gehienez 30 pertsonako taldea izan beharko da. Diru laguntzak egongo dira, bai erabiltzaileen kuota ordaintzerako orduan, baita, gure proiektua aurrera ateratzeko beharrezkoak diren arlo ezberdinetan ere.